

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

**Mikel Basabe Kortabarria** Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkideak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko interpelazioa aurkezten dio Rodolfo Ares Taboada, Herrizaingo sailburuari, Ertzaintzak herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko Herrizaingo sailak lituzkeen egitasmoen berri eman dezan.

### **ZIOA:**

Gauza jakina da lege ordenamenduak bermatu egiten duela Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek administrazioarekin dituzten ahozko zein idatzizko harremanetan ofizial diren hizkuntzen artean aukeratzeko eskubidea dutela. Hori segurtatzeko lana Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek bete behar dute, baita Eusko Jaurlaritzak ere, beraz.

Gauza jakina da administrazioaren esparru batzuetan aurrerakada nabarmena eman dela eskubide hori bermatze aldera, eta gaur egun duela hogeita zazpi urte (Euskararen erabileraren normalizazioa arautzen duen 10/82 Legea onartu zenetik) baino askoz egoera hobean gaudela. Hala ere, hizkuntza aukeratzeko eskubide hori gauzatu ahal izatea oso gaitza edo ezinezkoa da zenbait administrazio ataletan. Horien artean dago, zalantzarik gabe, Ertzaintza.

Hil honetan bertan, lan eskaintza publiko berria egin du Eusko Jaurlaritzak Ertzaintzarako. Horietan, erdiak dira hizkuntza-eskakizuna ezarririk duten lanpostuak, guztiek ere 1. hizkuntza-eskakizuna.

Kopuru hori txikiegia da, kontuan izanik Ertzaintzak, gaur egun, ez duela bermatzen ahozko nahiz idatzizko harremanak hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin ahal izango direla. Nekez ulertzen da, halaber, Ertzaintzan 2. hizkuntza-eskakizunik ez ezartzea.

### **INTERPELAZIOA:**

Zelan lortu gura du Barne sailak herritarrok administrazioarekin ahozko zein idatzizko harremanetan hizkuntza ofiziala aukeratzeko dugun eskubidea Ertzaintzarekiko



aralar

harremanetan ere bermatzea, herritarroi aparteko enbarazurik edo tramiteetan luzamendurik eragin gabe'?



**Gasteizen, 2009ko irailaren 9an**

**Mikel Basabe Kortabarria**

Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkidea